

**EUSKARA.** Gaur amaituko dira erakundeak corpusaren garrantzia azaltzeko antolatu dituen ikastaroak

# Etorkizuneko corpora sortzeko bideak ireki nahi ditu UZEIk

Europa osotik etorritako adituak bildu dira UZEIk Donostian antolatu dituen jardunaldietan

Arantxa Elizegi | DONOSTIA

Javier Saizar UZEIko lehendakariaren esanetan, «jardunaldien bitartez etorkizuneko corpora sortzeko bideak ireki nahi ditugu». Saizarrek Euskaltzaindiarentzat egindako lana azpimarratu zuen irekiera ekitaldian. Bertan izan ziren baita ere, Miren Azkarate Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua, eta Jean Haritxelhar euskaltzainburua.

Saizarren esanetan, Euskaltzaindiarentzat egindako lan horretarako «corpusak izan duen garrantzia kontuan hartu» behar dela esan zuen. Hala ere, Saizarrek adierazi zuenez, «azken urteotan corpus berri baten beharra nabaritu dugu euskararekin lan egiten dugunok, horregatik ekarri ditugu jardunaldi hauetara Espainiako eta Erresuma Batuko hainbat aditu, oinarri berri hori lantzen lagundu diezaguten, alegia».

## Aurkezpen ekitaldia

Irekiera ekitaldian izan zen baita ere, Miren Azkarate Kultura sailburua, eta bere esanetan, «jardunaldi hauek corpora zer den azaltzeko ez ezik, gure hizkuntzan duen garrantzia azpimarratzeko ere balioko dute». Bestalde, UZEIk orain arte egindako lana gogoratu eta goraiatu zuen Kultura sailburua. Kanpotik etorritako adi-



Jean Haritxelhar, Miren Azkarate eta Javier Saizar corpusari buruzko jardunaldien irekiera ekitaldian.

tuen lana ere eskertu zuen Miren Azkaratek.

Jean Haritxelhar euskaltzainburuak bestalde, UZEIk egindako lana eskertzeaz gain, ikastarotara joandako «adituen lanak euskal corpora sortu ahal izateko izan dezakeen garrantzia» azpimarratu zuen. Haritxelharrek adierazi zuenez, «orain arte baditugu eskuetan ahozko eta idatzizko corpusak, baina horiek berritzeko beharra dagoela konturatu gara aspal-

dian, eta horregatik erabaki dugu jardunaldi horiek antolatzeara». Euskaltzainburuak ere, Miren Azkarate bezala, Espainiatik eta Erresuma Batutik etorritako adituen lana eskertu nahi izan zuen bere hitzaldian.

## Europa osoko adituak

UZEIk antolatu dituen ikastarok gaur amaituko dira. Atzo, besteak beste, katalana, espainiera eta galegoaren corpusen nondik norakoak ezagutzeko

aukera izan zuten bertara hurbildu zirenek. Gaur, berriz, Lancaster-eko Unibertsitateko Geoffrey Leech irakasleak erreferentzi corpusei buruzko hitzaldia emango du. Arratsaldean, eta ikastaroak amaitzeko mahai-ingurua egingo da partehartzaile guztien artean.

Ikastaro horien helburua, besteak beste, hizkuntzarien lanean oinarritzea bilakatu den tresna baten garrantzia azpimarratzea izan da. Horretarako,

## ESANAK

### JAVIER SAIZAR

(UZEIko lehendakaria)

«Corpusak garrantzia handia du hizkuntzalaritzan egiten diren lanetan»

### MIREN AZKARATE

(Kultura sailburua)

«Corpusa zer den jakiteko baliagarriak izango dira jardunaldi hauek»

### JEAN HARITXELHAR

(Euskaltzainburua)

«Hona etorri diren adituen lana oinarritzea da euskal corpora sortzerakoan»

lan honetan adituak diren hainbat atzerritar ekartzeaz gain, euskaldunek egindako lanaren erakusketa txiki bat ere egin nahi izan dute antolatzaileek. Helburu horrekin, gonbidatu dituzte, besteak beste, Beñat Oihartzabal Euskaltzaindiko Iker sailburua, edo IXA taldeko Eneko Agirre.

Horietaz gain, UZEIko Miriam Urkiak erakunde horrek orain arte egindako lanaren laburpena ere eskainiko du.

UZEIk 25 urte daramatza hizkuntzalaritza munduan lanean. Javier Saizar lehendakariaren arabera, «hau guztia euskararen normalizazioa lortzeko beste pauso bat besterik ez da».

## MIRIAM URKIA UZEI ELKARTEKO LEXIKOGRAFIA SAILEKO TEKNIKARIA

A.E. | DONOSTIA

UZEIko teknikarietako bat da Miriam Urkia, eta baita jardunaldietako hizlarietako bat ere. Azken egunotan corpusaren iragana eta etorkizuna aztertzen aritu da Miriam eta horri buruz arituko da ikastaro hauetan ere.

### ■ Zein da ikastaro hauen helburua?

Guk denbora asko daramagu corpusekin lanean, eta azken aldian, eskuarteak daukagun materiala oso urria dela iruditu zaigu. Gure ustez, euskaraz azterketa on bat egin ahal izateko beharrezkoa da corpus handiago bat osatzea. Gaur daukagun baliabideekin posible da corpus egoki bat osatzea, batez ere EGUNKARIAK be-

rak argitaratzen dituen testuei esker. Azken batean, hizkuntzaren erakusgarri izango den corpora lortzea da gure helburua.

### ■ Zertarako balio du corpusak?

Egun, dokumentatua ez dagoen lan bat ez da fidagarria. Adibidez hiztegi bat egiterakoan zalantzak sor daitezke, eta corpusean oinarritzen gara zalantza horiek argitzeko. Gauza bera gertatzen da gramatikako azterketa bat egiten dugunean ere.

### ■ Desberdintasun handiak daude euskal corpora eta beste hizkuntzetakoaren artean?

Bai. Gaur [atzo] aurkeztuko dudana XX. Mendeko corpora estatistikoa da, ez da bost milioi hitzetara iristen. Espainiako Akademiak aurkeztuko duenak berriz 150 milioi hitz inguru ditu, eta Kataluniakoak 52 milioi inguru. Gaur egun, estandarra ehun milioi ingurukoa da. Baina guk ezin dugu horrelakorik lortu, besteak beste, euskararen baliabideak

murrizak direlako. Baina orain daukaguna ere ez da baliagarria, zaharkitua geratu da.

### ■ Nori zuzentzen zaizkio ikastaro hauek?

Beno, egia esan, uste genuena baino jende gehiago etorri da. Ez genuen uste corpusak hainbeste jenderen interesa piztuko zuenik. Bagenekien corpusekin lanean ari den jendea etorriko zela. Baina alor desberdinetako pertsonak etorri dira, beraz, argi geratu da ez garela alor honetan interesatuak gauden bakarrak.

### ■ Zein izan da Europa osoko adituak hona ekartzeko arrazoia?

Beno gure helburua hizkuntza desberdinetan egiten ari diren lanen adibideak ekartzea izan da. Lehen hitzaldia adibidez, Guillermo Rojok eman du, eta bere helburua zertaz arituko garen azaltzea izan da. Beste hizkuntzetan egiten ari diren lana ezagutzea beharrezkoa da, gurea bideratu ahal izateko. Horregatik antolatu dugu baita ere azken eguneko mahai-ingurua.

### ■ Truke baten antzekoa izango da, beraz...

Hala da, bai. Hori izan da gure helburua. Kanpoko jendeak gure lana ezagutzeko aukera izatea, batetik, eta guk beste leku batzuetan egiten ari direnaren berri izatea, bestetik.